



ABALTZISKETA

2018KO URRIAREN 3KO OHIKO BILKURAKO AKTA

Organoa: Abaltzisketako Osoko Bilkura.

Lekua: Abaltzisketan

Ordua: 19:00etan

Deialdia: Lehenengoa

Bildutakoak: Jon Zubizarreta. Alkatea

Mikel Senperena. Zinegotzia

Jose Mari Egunez . Zinegotzia

Kepa Gorostidi. Zinegotzia

Felix Maioz. Zinegotzia

Idazkaria: Nekane Lopetegi

Deialdia urriaren 4rako egin zen baina azkenean urriaren 3ra aldatu zen .

GAI ZERRENDA

1. 2018ko irailaren 6ko Bilkurako akta onartzea, hala balegokio.
2. Otamendi Etxeberria senideak izapidatzen ari diren notaritza dokumentua, non, erregistroan agertzen den finkaren deskribapena eta errealitatean dauden desberdintasunak zuzentze aldera, mugakideak deitzen direnez, Abaltzisketako Udaleko ordezkari gisa, Jon Zubizarreta Aldaia, Alkatea joateko baimena onartzea.
3. Udalak onartu duen erosketarako, dagokion kreditu aldaketa onartu eta bide batez, 2019 eta 2020 urteetarako konpromisozko kredituak ere onartzea.
4. Udalak, Otamendi Etxeberriari egin behar dion erosketa onartzea, hitzarmena onartzea eta berau sinatzeko Alkatea baimentzea.
5. Datuak babesteko legea bete ahal izateko, Abaltzisketako Udalaren delegatua izendatzeko, zerbitzuen kontratazioa egiteko proposamena onartzea.
6. 2019 urterako indarrean izango diren zerga eta tasak gainbegiratu eta dagokiona erabaki.
7. Alkateak eman dituen ebazpenen berri ematea:
45.- 46-47. Olano bidearen erabilera baimena egurra ateratzeko.



ABALTZISKETA

- 48.- Fiantza itzulera.
- 49.- Iraileko fakturak.
- 50.- Liburuzain lanpostua.

1- 2018-09-06 BILKURAKO AKTA ONARTZEA HALA BALEGOKIO.

Alkateak bilerari hasera eman ondoren, 2018-09-06 Bilkura aktaren izenburuak irakurtzeari ekiten zaio. Bertan, hitzez hitz irakurtzen ez bada ere, izenburuak komentatu eta laburtzen dira. Mahaikideen aldetik aurkakorik esan ez denez, dagoen bezala onartutzat eman da.

2- OTAMENDI ETXEBERRIA SENIDEAK IZAPIDATZEN ARI DIREN NOTARITZA DOKUMENTUA, NON, ERREGISTROAN AGERTZEN DEN FINKAREN DESKRIBAPENA ETA ERREALITATEAN DAUDEN DESBERDINTASUNAK ZUZENTZE ALDERA, MUGAKIDEAK DEITZEN DIRENEZ, ABALTZISKETAKO UDALEKO ORDEZKARI GISA, JON ZUBIZARRETA ALDAIA, ALKATEA JOATEKO BAIMENA ONARTZEA.

Otamendi Etxeberria senideak, beraien jabetzako eremuan, jabetza erregistroan dagoen deskribapena eta bertan errealitatean dagoena eta beti ezagutzen denaren artean desadostasun handia dago .

Otamendi Etxeberria senideak desadostasun hau zuzentzeko Ordiziako notaritzan “Acta de notoriedad para acreditar la discrepancia entre realidad física y rectificación descriptiva de finca registral” deritzan dokumentua sinatu behar dute.

Zuzenketa hau egiteko, espedienteak horrela eskatuta, Ordiziako Notaritzatik mugakide direnei akta sinatzeko eskatzen zaie. Eta horien artean, Abaltzisketako Udala aurkitzen da. Abaltzisketako Udalaren izenean, Alkatea den Jon Zubizarreta Aldaia aurkeztu behar du Ordiziako Notaritzan akta hau sinatzeko.

Beraz, Mahaikideek ERABAKI DUTE:



ABALTZISKETA

Bat .- “Acta de notoriedad para acreditar la discrepancia entre realidad física y rectificación descriptiva de finca registral” deritzana sinatzeko Abaltzisketako udaleko alkatea den Jon Zubizarreta Aldaia baimentzea.

Bi.- Eta erabakiaren berri Ordiziako Notaritzari jakinaraztea.

3- UDALAK ONARTU DUEN EROSKETARAKO, DAGOKION KREDITU ALDAKETA ONARTU ETA BIDE BATEZ, 2019 ETA 2020 URTEETARAKO KONPROMISOZKO KREDITUAK ERE ONARTZEA.

Idazkariak, 2018ko abuztuaren 23an, Udalaren asmoa jakin ostean, txosten bat luzatu zuen eta txosten horretako seigarren, zazpigarren, zortzigarren eta bederatzigarren puntuetan, ondorengoa adierazten da:

Seigarrena: Azpikoetxe eremu osoaren balioa, HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAR MILA EURO (370.000,00) da. Eta ordainketa era honetara egingo da:

1. 2018 urteko aurrekontuaren gain, 160.000,00 euro. Horretarako, 2018ko aurrekontuari kreditu aldaketa berria egin behar zaio. Eta zera jakin behar da: 2017 ekitaldiko gerakina 265.113 eurotako izan zela. Baina gerakin honetatik , ondorengo gastu hauek finantziatzeko erabili dira:

59.166,00 € Ostatu eta eskolako obra burutzeko (obra honegatik 33.106,00 eurotako laguntza jasoko da).

34.086,21 € Ñañarriko proiektuaren erredakzioa, Gimnasioko materiala, Larraitzko parkea.

Beraz, $265.113 - 59.166 - 34.086,21 = 171.861,00$ eta ondorioz, 11.861,00 euro geratzen dira, 2017 urteko gerakinetatik .

2. 2019ko aurrekontuaren gain, 105.000,00 €

3. Eta 2020ko aurrekontuaren gain, 105.000,00 €.



ABALTZISKETA

Zazpigarrena: Ondasunaren erosketa honek, konpromisu kredituak sortzen ditu, eta indarrean dagoen Arau Foralaren 22 artikulua xedatzen ditu kreditu konpromisu hauek.

Zortzigarrena: Ekitaldi bakoitzean ordaindu behar dena, dagokion ekitaldian jaso beharko da, hau da 2019 urtean 105.000,00 eta 2020an ere 105.000,00 euro.

Bederatzigarrena: Ekitaldi bakoitzean jaso behar den konpromisua ezingo da izan 2017 urtean jaso diren sarrera arrunten %25a baino handiagoa.

2017 urtean onartu den likidazioan ikusten denez, sarrera arruntak 423.726,85 eurotakao izan dira. Eta honen %25a, 105.931,71€ dira. Beraz, 2019 eta 2020 urteetarako hartzen diren konpromisuak ez dute zenbatekoa gainditzen.

Hamargarrena: Erosketa, Osoko Bilkuran onartzearekin batera, kreditu konpromisoak ere onartu behar dira eta 2018 urteko aurrekontuan horrela jaso behar dira.

Guztiaren berri jakin ondoren mahaikideek ERABAKI DUTE:

Bat.- 2018 ekitaldiaren barruan, 2018/03 kreditu aldaketa espedientea onartzea.

Bi.- 2018/5 eta 2018/6 konpromisozko kredituak 2019 eta 2020 ekitaldikoak onartzea.

4- UDALAK, OTAMENDI ETXEBERRIARI EGIN BEHAR DION EROSKETA ONARTZEA, HITZARMENA ONARTZEA ETA BERAU SINATZEKO ALKATEA BAIMENTZEA.

Abaltzisketako Udalak, Azpikoetxe eremuaren erosketa dela eta, ondorengo txostena luzatu zuen Alkateak, 2018ko abuztuaren 23an.



ABALTZISKETA

“Abaltzisketako udalaren helburu nagusia, herritar gazteek herrian bertan geratu eta bertan eguneroko bizitza antolatzea da; eta bide batez, herritarrak ez izan arren landa eremuko herri batetan bizitzea nahi dutenei ere aukera azaltzea da bertan eguneroko bizitza egiteko.

Era honetara, Abaltzisketako herriaren biztanlegoari eutsi, eta bertan zerbitzuak izateko aukera izango da: eskola, medikua, ostatua, liburutegia, dinamizazioa, e.a.

Abaltzisketako Udalak, 2013 urtean hirigunearen garapenarako helburuarekin Plan Orokorra onartu zuen. Plan Orokorrean bizitza berriak egiteko aukerak jaso ziren, horretarako landa eremuko lurak hirigune barruan sartu eta zegokion kalifikazioa emanez.

Abaltzisketako Udalak, Plan Orokorra egina izan arren, gaur egun hirigunean bertan, zenbait etxe, baserri eta eremu hutsik geratzen ari direla ere ikusi da, eta lehenbait, lehen zeuden eraikinak eta orubeak erabili eta irtenbidea ematea ikusi zen.

Horregatik, Abaltzisketako Udala hirigunean hutsik zeuden zenbait jabeekin harremanetan jarri zen, hiriguneari erabilera eta eraberritze lanei hasera emateko.

Bide batez, Azpikoetxeko jabetzaren aldetik, saltzeko asmoa bazegoela jakin zen.

Hiriguneko jabeekin hitz egin eta proposamenak luzatu zitzaiezkien. Hainbat bilera egin ostean desadostasunak argitzen joan ahala, Azpikoetxeko jabetzarekin adostasunera iritsi zen.

Beraz, Udalak, eskuratu nahi duen ondasun honekin lortu nahi dituen helburuak dira:

1. Abaltzisketako hirigunean dauden eraikin eta orubeak hutsik egon ordez, Udalak zuzenean ezinezkoa bada ere zeharka sustatzeko ahaleginak egitea.



ABALTZISKETA

2. Ereku berrietan eraiki orde, lehen eraikita dauden eremuak erabili eta berreraiki, eta lurak nezakazaritzarako errespetatu.
3. Abaltzisketako herriaren iraupena bermatzeko eta berau ere modu jasangarrian bideratzeko, Udalak bitartekari lanak burutu eta bizitza berriak eskaintzeko ahalegina egitea.
4. Eta bide batez, hirigunearen eremuaren zatia ordenatu, bertan dauden beharrei erantzuteko.

Abaltzisketan, 2018ko abuztuaren 23an. Alkateak.”

Ondoren Idazkariak, data berdinarekin ondorengo txostena luzatzen du:

“Abaltzisketako Udalak, bere helburuak betetzeko asmoarekin, zenbait bilera egin ostean, azkenik, azpiko etxe eremua erosteko akordioa adostu dute. Horren inguruan, legeak eskatzen dituen betekizunak aipatzeko, ondorengo txostena luzatzen da:

TXOSTENA

Lehena: Azaroaren 3ko 2003/33 Administrazio publikoetako ondarearen legeak, 116 artikuluan, Administrazio publikoak ondareak eskuratzeko bete behar duen prozedura arautzen du.

Bigarrena: Ondasunaren erosketa akordioa Udaleko Osoko Bilkurari dagokio, botuen gehiengoarekin, hain zuzen ere.

Hirugarrena: Ondasunaren erosketa burutzeko, aurrez espedientea izapidatu behar da, ondorengo dokumentazioarekin osatuaz:

- Txostena, non, erosketaren beharra edo egokitasuna agertzen duena, ondasunarekin bete nahi diren helburuak eta erosketa egiteko prozedura.
- Erosketa egiteko lehiaketa publikoa egin behar da. Erosketa zuzena egin ahal izateko, beharrenden ezaugarri zehatzak zuriu behar dira, ondasunen merkatuko balioa, eta bestelako ezustekoak baldin badaude.



ABALTZISKETA

- Udaleko Idazkari-kontuhartzailearen txostena.
- Ondarearen balioa egiaztatzen duen agiria, Udaleko arkitektoak sinatua.

Laugarrena: Udaleko Alkateak bere txostena luzatu du, helburuak agertuaz. Prozedurari dagokionez, bere berezitasunagatik lehiaketa egitea ezinezkoa da. Halere, Udalak dituen asmoak betetzeko Abaltzisketako hirigunean bi aukera zeuden eta biekin harremanetan jarri da, akordioetara iristeko. Prozedura lehiaketa irekia bete ez bada ere, bere berezitasunagatik bete ezinezkoa da, aldiz, aukera berdina zuten bi jabegokin hitz egin da.

Bostgarrena: Udalak jabegoarekin adostu duen balioa eta ordaintzeko era azterturik, Abaltzisketako Udaleko aurrekontuetan duen eragina agertzen da .”

Txosten honen jarraia, kreditu aldaketa atalean jaso dago.

Eta azkenik, Abaltzisketako Udalak, gaurko eguan honako salerosketa hitzarmenaren zirriborroa onartu du:

Salerosketa Hitzarmena

Abaltzisketan, 2018eko

BILDU DIRA

Batetik, Maria Aranzazu Avelina Otamendi Etxeberria	72414754J
Maria Concepcion Otamendi Etxeberria	72423489P
Ana Maria Otamendi Etxeberria	72423490D
Itziar Otamendi Etxeberria	72423492B
Jose M ^a Otamendi Etxeberria	15909351K
Iñaki Otamendi Etxeberria	72430501M



ABALTZISKETA

Eta bestetik, JON ZUBIZARRETA ALDAIA Jauna, Abaltzisketako Udaleko Alkatea, 2018ko urriaren 3ko Osoko bilkuran honetarako dagokion baimena onartu zuena.

Eta bi alderdiek, legeak ezarritako gaitasuna izanik, adierazi

Eta ADIERAZTEN DUTE :

LEHENA.- Otamendi Etxeberria senideak, ondoren aipatzen den ondasunaren jabetza dutela, Tolosako D. Pedro Elosegui Bergareche Notarioaren aurrean egindako OBRA ZAHARRAREN AITORPENA jasotzen duen eskritura publikoan agertzen denez, 2012ko martxoaren 21ekoa eta 307 protokoloa dena:

“Casa llamada Elizalde azpikoa, también conocida como Azpikoetxe, señalada con el número dos de la calle San Juan, actualmente Abaltzisketa Hirigunea número siete de Abaltzisketa.

La casa Azpikoetxe tiene una superficie de ciento sesenta y ocho metros cuadrados (11,20m x 15m), sin contar con la escalera de acceso a planta bajo cubierta situada en el lindero Sur, y linda Norte con el garaje y la terraza de su propiedad espacio de acceso a la misma; Sur, Casa Consistorial y camino peatonal que va a Beheko kalea; Oeste, con terreno de su propiedad y el garaje y la terraza; y Este, con carretera provincial.

Consta de planta baja, piso primero y bajo cubierta.

Distribución: Una vivienda en la planta baja, dos viviendas en la planta primera y dos vivienda en la planta segunda, por tanto en total, cinco viviendas.

La edificación suma una superficie total construida de seiscientos setenta y dos metros cuadrados a razón de ciento setenta y ocho metros cuadrados por planta.

Tiene una construcción aneja en el lindero norte de la casa que tiene una superficie de ciento treinta y cinco metros cuadrados (9 x 15m), y linda: Norte, con su huerta; Sur, casa Azpikoetxe y terreno libre de Azpikoetxe; Este, terreno privado de acceso rodado; y Oeste con su terreno libre.



ABALTZISKETA

Distribución: una planta y encima su terraza.

Tiene como accesorio: una huerta contigua a la edificación que mide ciento veintinueve metros cuadrados y linda: Norte, con huerta de Donjuanenea; Sur, con Elizalde azpikoa y la casa; Este con la casa y la plaza pública; y Oeste, con Otamendi barrena.

Tolosako 2. Jabetza Erregistroan inskribatuta dago: Abaltzisketako Udaleko tomoa 2079 liburua 17 folioa 79 finka 11-B eta inskripzioa 11na.

Abaltzisketako Udaleko katastroan, eta Udalak erredaktatu dituen Plan Orokorrean agertzen diren datuak kontutan hartuta, 836 m² dira eta, saltzaileak agertu duten tituluan 424 m² daude. Hala ere, Ordiziako notariaren "acta de notoriedad para acreditar la discrepancia entre realidad física y rectificación descriptiva de finca registral" deritzana izapidatzen ari dira. Eta bertan, eremuaren azalera zuzena agertzen da

IV.- DESCRIPCIÓN REAL DE LA FINCA.- Que la finca a que se refiere el expositivo anterior tiene en la realidad la siguiente descripción, cabida y linderos:-----

CASA LLAMADA ELIZALDE-AZPIKOA, también conocida como Azpikoetxe, señalada con el número dos de la calle San Juan actualmente Abaltzisketa Hirigunea, número siete de Abaltzisketa. La casa Azpikoetxe tiene una superficie de ciento sesenta y ocho metros cuadrados (11,20m x 15m), sin contar la escalera de acceso a la planta bajo cubierta situada en el lindero Sur.-----

Consta de planta baja, piso primero, piso segundo y bajo cubierta. Distribución: una vivienda en cada planta y en la planta segunda dos, por tanto, en total, cinco viviendas. La edificación suma una superficie total construida de



ABALTZISKETA

seiscientos setenta y dos metros cuadrados a razón de ciento sesenta y ocho metros cuadrados por planta.-----

Tiene una construcción aneja en el lindero Norte de la casa que tiene una superficie de ciento treinta y cinco metros cuadrados (9m y 15m).-----

Distribución: una planta y encima su terraza.---

Tiene como accesorio: una huerta contigua a la edificación que mide **quinientos diez metros cuadrados**.-----

Toda como una sola finca mide ochocientos trece metros cuadrados y linda por norte con paso peatonal público a beheko kalea; Sur también paso peatonal público a beheko kalea y Sociedad Larrunarri; este carretera provincial y Oeste terreno público ajardinado.-----

Beraz, zuzenketa espedientea amaitu eta jabetza erregistroan inskribatzeko konpromisoa hartzen dute.

BIGARRENA.- Abaltzisketako Udalak, Arau Subsidiarioetan agertzen den Azpikoetxe eremu osoa erosteko asmoa duela aurrerantzean bizitzak egiteko. Eta 2018ko urriaren 3ko Osoko Bilkuran erabaki hartu eta Jon Zubizarreta Aldaia baimendu zen, erosketa formalizatu ahal izateko.

Eta ERABAKITZEN DUTE:

LEHENA.- Otamendi Etxeberria senideak zama, karga, errentamentu gabe beren jabetza saltzen dute, inolako motatako zorrik ez duelarik.

Abaltzisketako Udalak, 2018ko urriaren 3ko Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren arabera, eta guztien adostasunarekin, Otamendi Etxeberria senideak jabetzan duen Azpikoetxe eta ondoko baratzaren erosketa egiteko akordioa onartu du .



ABALTZISKETA

Legegintzaldia amaitzerako, hau da, 2019ko maiatzerako hitzarmen hau eskritura publikoan jaso behar da, dagokion azalera zuzenketa espedientea eginez

BIGARRENA.- Prezioa: Udaleko arkitektoak emandako balorazioa kontutan hartuaz, eremu osoaren eta bertako eraikinen balioa **HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAR MILA EURO (370.000,00 €)** eurotan baloratu da, eta prezio honetan adostu da erosketa.

HIRUGARRENA.- Ordaintzeko era: Erosketaren ordainketa era honetara egitea onartu da:

2018 urteko aurrekontuaren gain hitzarmena egiten denean 160.000,00 euro.

2019 urteko aurrekontuaren gain, data berdinean 105.000,00 euro

2020 urteko aurrekontuaren gain, data berdinean 105.000,00 euro

LAUGARRENA.- Bi alderdietako norbaitek kontratua beteko ez balu, Saltzailea balitz kontratua bete ez duena, jasotako dirua itzuli beharko dio udalari baino ordaindutako zenbatekoaren bikoitza.

Eroslea balitz kontratua bete ez duena, ondasuna itzuliko du momentu horretan eraikina edo orubea dagoen moduan, eta egindako ordainketa galdutzat emango da. Udalak eraikina edo orubea momentu horretan dagoen bezala itzultzea esaten denean, esan nahi du, Udalak hitzarmena sinatzen duenetik hainbat aktuzio egiteko eskubidea duela eta etxean edo orubean egindako aktuzioaren ondorioz geratzen den bezala itzuliko dela .

BOSGARRENA.- Hitzarmena sinatzen den unetik hasita, erosleak bere gain izango ditu, ura, argia eta bestelako tasa eta zergaren ordainketa ardurak. Horretarako errezioboaren kopiak erosleari eskuratu behar zaizkio.

SEIGARRENA.- Hitzarmena sinatzen den unetik hasita, erosleak ondasunen erabilera egiteko eskumen osoa izango du, behar dituen helburuak betetzeko.



ABALTZISKETA

ZAZPIGARRENA.- Hitzarmena edo eskritura publikoak jasotzearen gastuak eta bestelako zergak ere eroslearen gain izango dira, hau da Udalaren gain. Aldiz, saltzaileek plusvalía deritzanaren zerga beregain izango dute.

ZORTZIGARRENA.- Kontratugileen artean edozein desadostasun gertatuko balitz Gipuzkoako Epaitegi eta Auzitegien erabakipean jarriko da.

Eta agiri honetan esandakoarekin ados daudela adierazteko, bi alderdiek salerosketa hitzarmen honen bina ale izenpetu dituzte ondorio bakarrerako, hasieran aipatutako toki eta egunean.

SALTZAILEAK

EROSLEA

Mahaikideek ERABAKI DUTE:

5- DATUAK BABESTEKO LEGEA BETE AHAL IZATEKO, ABALTZISKETAKO UDALAREN DELEGATUA IZENDATZEKO, ZERBITZUEN KONTRATAZIOA EGITEKO PROPOSAMENA ONARTZEA.

2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua onartu zen eta 2018ko maiatzaren 25ean indarrean sartu zen.

Erregelamendu hau zuzenean ezarri beharrekoa da Europar Batasun osoan, lehen zegoen araudia ordezkatuaz. Besteak beste, lege berriak datu pertsonalen tratamenduen arduradunen betebeharrei dagokinez aldaketa eman da eta bestetik, administrazio publikoari dagokionez, DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIA EDO DELEGATUA izendatu behar da. Eta Delegatuaren izendapena, Datuak babesteko Euskal Bulegora jakinarazi behar da.

Datuak babesteko ordezkariaren izendapena egiteko, zenbait bilera eta modu aztertu dira eskualdean, baina azkenik, legedia bete ahal izateko udal bakoitzak ahal duen moduan kanpoko kontratazioa egitea proposatu zen, gutxienez urte beterako, Izfek irtenbidea eman bitartean.



ABALTZISKETA

Hori horrela izanik, aurrez udal honetan datuen babeserako lanak burutu zituen teknikarirekin harremanetan jarri ginen eta aurrekontuak eskatu dira, alde batetik, datuen babeserako auditoritza eta egokitzapena lanak egiteko, eta bestetik mantentze lanak egitea.

Biantik etxeak egin du proposamena eta bi lan horiek egiteko aurrekontu hau aurkeztu du:

- Auditoritza eta egokitzapen lanak 1.245,00 € B.E.Z. kanpo.
- Eta jarraipena, hileko 50,00 € gehi B.E.Z.a.

Guztiaren berri jakin ondoren , mahaikideek ERABAKI DUTE:

1. Biantik etxeak aurkeztu duen aurrekontua onartu eta auditoria eta egokitzapen lanak egitea berari esleitzea.
2. Eta jarraipen lanak ere Biantik etxeari esleitzea, urte beterako hitzarmena sinatzen denetik kontatuta.
3. Eta hitzarmena sinatzeko ahalmena Alkateari ematea.

6- 2019 URTERAKO INDARREAN IZANGO DIREN ZERGA ETA TASAK GAINBEGIRATU ETA DAGOKIONA ERABAKI.

Indarrean dauden zerga eta tasen berri azaldu ondoren, ondorengoa ERABAKI DA:

1- IBILGAILUEN ZERGA

Hobariak

- Ibilgailu elektrikoak, kuotaren %75eko hobaria izango dute eta Hibridoak direnak, kuotaren %50eko hobaria izango dute.



ABALTZISKETA

- Kuotaren %50 arte, ibilgailu historikoa den kasuetan. Fabrikazio egunetik kontatuta 25 urteko aintzinasuna duten ibilgailuentzako.
- Familia ugarien titulua dutenei, %50eko hobaria aplikatzea.

2019 urterako kuotak:

- Tipoaren %1ko igoera aplikatzea, K.P.Iren arabera, hau da gutxienerako kuotari 1,47 aplikatzea.

Ibilgailu mota eta potentzia

Gutxi.kuota
(1)

Egungo kuota
(1,47)

A) Turismoak:		
9 zaldi fiskal bitartekoak	18,39	27,03
9 - 11,99 zaldi fiskal bitartekoak	36,78	54,06
12 – 13,99 zaldi fiskal bitartekoak	61,30	103,93
14 – 15,99 zaldi fiskal bitartekoak	85,82	126,15
16 – 19,99 zaldi fiskal bitartekoak	110,34	162,19
20 zaldi fiskaletik gorakoak	134,86	198,24
B) Autobusak:		
21 plaza bitartekoak	83,30	122,45
21- 50 plaza bitartekoak	118,64	174,40
50 plazatik gorakoak	148,30	218,00
C) Kamioiak:		
1.000 kg. bitarteko karga erabilgarria	42,28	62,15
1.000 – 2.999 kg. bitarteko karga erabilgarria	83,30	122,45
2.999 – 9.999 kg. bitarteko karga erabilgarria	118,64	174,40
9.999 kg.-tik gorako karga erabilgarria	148,30	218,00
D) Traktoreak:		
16 zaldi fiskal bitartekoak	17,67	25,97
16 - 25 zaldi fiskal bitartekoak	27,77	40,82
25 zaldi fiskal bitartekoak	83,30	122,45
E) Trakzio mekanikoko ibilgailuen atoi eta erdi-atoiak:		



ABALTZISKETA

750 – 1.000 kg. bitarteko karga erabilgarria	17,67	25,97
1.000 – 2.999 kg. bitarteko karga erabilgarria	27,77	40,82
2.999 kg.tik gorako karga erababilgarria	83,30	122,45
F) Gainerako ibilgailuak:		
Ziklomotoreak	4,51	6,62
Motozikletak: 125 zentimetro kubiko bitartekoak	4,51	6,62
Motozikletak: 125-250 zent. kubiko bitartekoak	7,72	11,34
Motozikletak: 250-500 zent. kubiko bitartekoak	15,45	22,71
Motozikletak: 500-1.000 zent. kubiko bitartekoak	30,90	45,42
Motozikletak: 1.000 zent. kubikotik gorakoak	61,79	90,83

HOBARIAK ESKATZEKO EGUTEGIA:

- Urtarrilaren 7tik hasita eta 30 arteko epea izango da.
- Udalak, martxoaren amaierarako eskaeraren inguruko ebazpena emango du.
- Udalak apirileko Osoko Bilkuran trakzio mekanizkozko ibilgailuen zerga errolda onartuko du.
- Udalak, maiatzaren 1ean, zerga ordaintzeko borondatezko epeari hasera eman eta ekainaren amaieran amaituko da.

HOBARIAK ESKATZEKO PROZEDURA:

Ondorengo dokumentuak aurkeztu behar dira:

- Eskaera orria.
- Ibilgailuaren fitxa kopia.

2- ONDASUN HIGIEZINEN GAINENKO ZERGA. Obligaziozko zerga

Erabaki da, tipoaren %1eko igoera egitea eta energi berriztagarriaren hobaria ezabatzea.



ABALTZISKETA

HOBARIAK:

- Kuotaren %90eko hobaria familia ugarien kasuan.
- Kuotaren %50eko hobaria babestutako bizitzen kasuan.

KUOTAK:

Landalurra: Balioaren %0,3tik %1,1 arte. Abaltzisketako kasuan %0,7889 2018 urtean. 2019 urterako %1 eko igoera tipoari aplikatu eta %0,7967 izango da.

Hirilurra: Balioaren %0,04tik %4 arte. Abaltzisketan kasuan %0,1985, 2018 urtean eta 2019 urterako %1eko igoera tipoari aplikatu eta %0,20004 izango da.

HOBARIAK ESKATZEKO EGUTEGIA:

- Urtarrilaren 7tik hasi eta 30 arteko epea izango da.
- Udalak, martxoaren amaierarako eskaeraren inguruko ebazpena emango du.
- Udalak, Foru Aldundiari jakinaraziko dio, behin betiko errolda egiteko.

HOBARIAK ESKATZEKO PROZEDURA:

Ondorengo dokumentuak aurkeztu behar dira:

- Eskaera orria.
- Hobaria zuritzeko behar den dokumentazioa.



ABALTZISKETA

3- ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA.

2018 urterako zegoen bezala uztea erabaki da.

4-TASAK

2018 urteko berdina uztea.

7- ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN BERRI EMATEA:

Alkateak, azkeneko bilkuratik bilkura berriko deialdia egin bitarte eman dituen ebazpenak agertzen zaizkie mahaikideei:

- 45.- 46-47. OLANO BIDEAREN ERABILERA BAIMENA EGURRA ATERATZEKO.
- 48.- FIANTZA ITZULERA.
- 49.- IRAILEKO FAKTURAK.
- 50.- LIBURUZAIN LANPOSTUA.

Mahaikideek, ebazpenen berri jakin eta ontza eman dituzte.

Eta besterik ezean, bilera amaitutzat eman zuen Alkateak 21:10etan.

Alkatearen O.E.

Idazkariak